

Historia, mentura eta adiskidetasuna

AZKEN ANAIA

Izenburua. *Azken anaia*. Jatorrizko izenburua. *Le dernier frère*. Egilea. Nathacha Appanah. Itzultzailea. Mikel Carmendia. Argitaratze urtea. 2008. Argitaletxea. Alberdania.

INMA ERREA

AZKEN *anaia* nobelaren ardatz nagusia adiskidetasuna da, zorigaitzek eta gertaera historikoek elkartzten dituzten bi gaztetxoek arteko adiskidetasuna, alegia. Bi anaiak galdu dituen Raj mutiko maurizioarra eta Bigarren Mundu Gerran Txekoslovakiatik Maurizio uharteraino joandako David haur judua adiskide eginen dira, eta –zein bere penen gainetik eta elkarren mintzoak ia konprenitu gabe– haurrek berezko duten

egitekoan saiatuko dira: jolasean.

Baina hori izanik nobelaren mui-na, kontakizunak beste gauza asko eskaintzen dizkigu. Raj zahartu batek kontaktzen dizkigu txikitako gertaeren gainean 60 urtez gorde dituen oroitzapen eta sentimenduak. Izan ere, Daviden heriotzak –Raj eta David 9 eta 10 urteko haurrek zirenean gertatua– bizitza osorako markaturik utzi zuen Raj.

Kontakizunak hasieratik bukararaino harrapatzen gaitu. Lehenik eta behin, jakin-min bitxi bat pizten duelako guregan: David hila dela hasiera-hasieratik jakinik ere, nobela osoan zehar jakin nahi izanen dugu nola hil zen, zerk eragin zion heriotza edota zer lotura izan zuen harekin Raj gaztetxoak.

Bestalde, Bigarren Mundu

Gerran gertatu eta ia ezagutu gabe pasatu den gertaera baten berri ematen zaigu nobelan: Palestina helmuga zuelarik 1940an nazismotik iheska Europako ekialdeko 1.500 judu zeramatzan *L'Atlantic* itsasontzia Maurizio uhartera iritsi zela, bidaiariek Beau-Bassineko presondegian espetxeraturik bost urte eman zutela, eta haietatik 127 Maurizio uhartean hil eta bertan lurperatu zituztela. Hala ere, munduan gerra handi bat gertatzen ari zela ere ez zekien Raj haurraren ikuspegitik kontaktzen digu hori guztia Nathacha Appanahk.

Appanahk egindako narrazioa zirraraz betea da. Zirraraz eragiten du gizon-emakume arrunten egunerokotasunari eta funtsezko gau-

zei buruzko kontakizunak, noiz eta Historiako gertaera krudel handiek –ikasliburuetan biltzen diren horiek– haien bizitzak zeharka bada ere ukitzen dituztenean. Zirraraz pizten du, baita ere, bi haurren arteko adiskidetasunaren zein zorigaitzetan bizirauteko senak piztutako elkartasunaren deskribapenak. Eta zirraragarria da, azkenik, errealitatea atzemateko gureaz besteko ikuspegi historiko eta geografikoei heldu beharra.

Zirraraz sortzeko, baina, Appanahk idazkera neurrikoa erabiltzen du, gehiegizko sentiberatasunik gabea, halakoa non kontraste handia egiten baitu gertaeren dramatismoarekin. Salbuespen bakarra, jokamolde neurtu horre-

tan, Maurizio uharteko paisaien deskribapena izan daiteke, horretan nabarmena baita egilearen jaidura.

Nathacha Appanah Maurizio uhartean jaioa da, 1973an, hango familia hindu batean. Hango hizkuntzaz –kreoleraz–, ingelesez eta frantsesez mintzo da, besteak beste, baina frantsesez idazten du, eta Frantziar bizi da. Mikel Garmendiak euskaratutako nobela hau idazleak argitara eman duen laugarrena da, eta FNAC nobela saria irabazi zuen iaz. Nobela hau baino lehen, *Les Rochers de Poudre d'Or*, *Blue Bay Palace* eta *La Noce d'Anna* eleberriak idatzi ditu Appanahk. Guztietan, Maurizio uharteko bizimoduaren oihartzuna jaso ditu egileak.